



GAZTEEN HIZKUNTZA ERABILERAREN PERSPEKTIBA ETA PROSPEKTIBA PROIEKTUA

Sonia Perez

Topagunea Euskara Elkarten Federazioa

Jaime Altuna

Gipuzkoako Urtxintxa Aisialdi Eskola

Oihana Lujanbio

Soziolinguistika Klusterra

Helbide elektronikoa: oihana@soziolinguistika.org

*Euskararen erabilera eskola orduz kanpo da BAT aldizkari honen gaia. Eskola orduz kanpo esaten denez, eskolara joaten direnez ari garela pentsatu behar. Eta horietako asko gazteak dira. Horregatik ikusi genuen apropos zenbaki honetan Soziolinguistika Klusterra, Gipuzkoako Urtxintxa Aisialdi Eskolarekin eta Topagunea Euskara Elkarten Federazioarekin batera garatzen ari den proiektuaren berri ematea: *Gazteen hizkuntza erabileraren perspektiba eta prospektiba.**

PROIEKTUAREN KOKAPENA, HELBURUAK ETA METODOLOGIA

Kokapena

Gazteen esparrua garrantzi bereziko esparrua dugu hizkuntzaren berreskurapen prozesua bultzatzearen ikuspuntutik. Batetik, etorkizuneko belaunaldia delako gazteena. Etorkizuneko jendartea hezur mamitu eta gidatuko duena. Bestetik, hainbat ikerketek erakusten dutelako, gazte

garaian finkatzen eta errotzen direla hizkuntza erabilera ohitura sendoenak. Nagusiki hizkuntza batean edo bestean bizitzeko “erabakia” gazte garaian hartzen dela.

Kezka hau abiapuntu, hemen aurkezten dizuegun proiektua abiatzea erabaki genuen. Proiektuaren abiapuntuan, oinarritzko ideia bat genuen: orain arte egin dena ezagutu eta aztertu behar dugu, aurrera begira egin beharrekoaz hitz egiteko.

Proiektua 2006ko udazkenean abiatu zen eta 2007ko udazkenean bukatuko da, emaitzen zabalpenerako jardunaldi batekin. Segidan, proiektu honi ekiterakoan izandako helburuak eta horiek gauzatzeko zehaztutako metodologia azalduko ditugu.

Proiektuaren helburuak

Proiektu honek bi helburu hauek ditu: Batetik, euskal hiztun gazteen hizkuntza bilakaera ezagutzeko azken urteetan egin diren esperientziak, ikerketak eta lanak biltzea. Bestetik, oinarri horretatik abiatuta, dauden hutsuneez ohartu eta etorkizunean interesgarrien edo emankorren izango diren lanildoak proposatzea. Oinarrian, egindakoa sistematizatzeke eta dispertsioa saihesteko nahia eta dagoena bildu eta ezagutzera emateko asmoa dago.

Proiektuaren metodologia

Soziolinguistika Klusterrak lan-eskemaren proposamena osatu zuen eta bere bazkideen artean esparrua lantzen dutenekin batera, lan-taldea eratu.

Lehen egin beharra, lanari abiapuntu sendo bat emango zion bilketa egitea izan da. Hau da, gazteen hizkuntza erabileraren inguruan egin diren ahalik eta esperientzia, ikerketa eta argitalpen gehien biltzea. Honen ardurak Urtxintza eskolak hartu du eta gaiaren inguruan ari diren eragileei eskaera hau egin die: “Gazteak eta euskara” gaiarekin erlazionatuta eta azken 10 urteetan bide bat egindako eta emaitza batzuk eman dituzten proiektu, ikerketa edota lanen berri emateko. Eskaera Euskal Herriko 380 erakunderi egin zaie eta **91 proiektu**ren berri jaso dugu.

Hurrengo urratsa, oraintxe egin duguna da: Proiektuari ekarpena egingo dioten aditu eta arituengana jotzeko, bildutakoari forma eman eta egindakoa azaltzeko txosten bat osatzea.

Esan bezala, 3 tipologia hauetan banatu ditugu bildutakoak: Esperientzia praktikoak, ikerketak eta argitalpenak. Hauek dira gaiaren inguruan egindakoaren perspektiba osatzeko baliatuko ditugunak. Jarraian, bildutakoaren ezaugarri nagusien berri emanen dugu.

Gazteen esparrua garrantzi bereziko esparrua dugu hizkuntzaren berreskurapen prozesua bultzatzearen ikuspuntutik. Batetik, etorkizuneko belaunaldia delako gazteena. Etorkizuneko jendartea hezur mamitu eta gidatuko duena. Bestetik, hainbat ikerketek erakusten dutelako, gazte garaian finkatzen eta errotzen direla hizkuntza erabilera ohitura sendoenak. Nagusiki hizkuntza batean edo bestean bizitzeko “erabakia” gazte garaian hartzen dela.

Gaiari buruzko esperientzia praktikoekin lotutako 106 fitxa jaso dira. Bildutako fitxak nondik etorri diren begiratuta, igorle gehienak tokiko administrazio publikoak direla eta euskalgintzako erakundeen esperientziak faltan daudela ikusi dugu. Dena den, orokorrean egun egiten denaren argazki nahiko osotua lortu dela uste dugu.

PERSPEKTIBA OSATZEKO: BILDUTAKO JARDUERAK TIPOLOGIAKA

1. Esperientzia praktikoak

Gaiari buruzko esperientzia praktikoekin lotutako **106 fitxa** jaso dira. Bildutako fitxak nondik etorri diren begiratuta, igorle gehienak tokiko administrazio publikoak direla eta euskalgintzako erakundeen esperientziak faltan daudela ikusi dugu. Dena den, orokorrean egun egiten denaren argazki nahiko osotua lortu dela uste dugu.

Jasotako esperientziak nori zuzenduak dauden aztertuz gero, bereziki gaztetxoei zuzendurikoak direla (12/16 urte) nabarmendu daiteke. Bestalde, esperientzia hauek ere oso gazteak dira, batez beste duela bi edo hiru urte sortutakoak baitira. Ditutzen helburuei ere erreparatu diegu. Esperientziak errepikatu egiten dira tokian tokiko berezitasunekin, baina funtsean denak ondoko xede edo helburu nagusitan laburbildu daitezke:

- Euskararen ERABILERAN eragitea
- Euskararen EZAGUTZA errefortzuak
- Euskararekiko MOTIBAZIOA sustatzea

Sailkapenekin jarraituz, esperientzia guztiak ondoko 10 esparrutan sailkatu daitezke:

1. **Udalekuak eta egonaldiak:** asteburukoak, udakoak, hiru udalekuak, ibiltariak, kanpamenduak, barnetegiak.
2. **Kultur ekintzak eta ikuskizunak:** antzerkia, zinema, musika, sormena...
3. **Eskolaz Kanpoko Ekintzak:** egunerokoak, garai puntualekoak, asteburukoak
4. **Ikastorduz Kanpoko Ekintzak:** ikastetxean bertan antolatzen direnak
5. **Ekipamenduak:** haur txoko edo ludotekak eta gazte lekuak
6. **Formazioa:** motibazio saioak, errefortzu saioak, ikastaroak (gaztetxo, hezitzaile, irakasle...)
7. **Hedabideak:** telebista, aldizkariak eta teknologia berrien bidezkoak (txat, blog eta webguneak)
8. **Lehiaketak:** bertsolaritza, SMS, poesia eta literatura, amodiozko gutun, graffiti, ikus-entzunezkoak, piropoak...
9. **Irakurketa, idazmena eta ahoskera lantzekoak**
10. **Bereziak edo "izendunak":** Kuadrillategi, Asteburuetan.com, Hizkuntzarekin jolasean

Esperientzia guztietan erabiltzen den metodologiari dagokionez, aisian eta honen filosofian oinarriturikoa dela ikusi dugu. Euskara

GOZAMENA, ETA ASKATASUNAREKIN lotzen da, modu honetan euskarari erabilgarritasuna eta erakargarritasuna emanez.

2. Argitalpenak

Gazteen hizkera edo gazteek erabiltzen duten hizkuntzaren inguruko argitalpenen **19 fitxa** jaso dira. Hauei beste hiru fitxa gehitu dizkiegu euskaraz gazteei zuzenduta argitaratzen diren hiru aldizkari edo gehigarri: Gaztezulo hilabetekaria, Xirika kazeta eta Matraka astekaria. Argi dago, azken urteetan, argitalpen hauetaz gain, gazteei zuzendutako beste hainbat lan argitaratu eta argitaratzen direla, baina jasotakoa panorama adierazteko baliagarri zaigu.

Argitaratzen diren gauzen artean, honako sailkapena egin daiteke:

1. Gazteei zuzendutako euskarazko aldizkako argitalpenak: Informazio orokorra lantzen badute ere, gehienetan gazteen artean euskararen normalizazioarekin lotutako helburuak izaten dituzte. Batzuetan beste argitalpen barruko gehigarri moduan argitaratzen dira. Horrelako argitalpenak bi multzotan banatu ditzakegu:

– **Herri mailan argitaratzen diren aldizkariak:** Hilabetekariak izaten dira, batzuetan independenteki doazenak, eta helburua gazteen artean erabilera handitzea izaten dute. Gehienetan, artikulua idazteko gazteen parte hartzea bilatzen da. Adibide moduan 20 urte martxan daraman Donostiako *Auzoka* aldizkariarekin batera, Debako *Berriketan Gaztea* edo Gernikako *Bagabiz* gazte aldizkariak aipa ditzakegu.

– **Euskal Herri mailan argitaratzen direnak:** Hauen artean hiru nabarmendu daitezke: *Gaztezulo* hilabetekaria, *Xirika* kazeta eta *Matraka* astekaria. Azken hau Berria egunkariaren gehigarri moduan banatzen da. Gazteei zuzendutako gaiak euskaraz jorratzen dituzte.

2. Gazteei zuzendutako euskararen inguruko argitalpenak: Horrelako gutxi argitaratzen dira eta gehienetan, hizkera ez formalarekin edo argotarekin lotura duten argitalpenak izaten dira. Hauen helburua euskaraz ez formalaren sustapena izaten da. Honelakoak dira *SMS Segapoten Mezu Sekretuak*, *Zingi Zango*, *Mantxut* edo *99 pirolo poltsikorako* moduko argitalpenak. Bada, bestalde, gazteei zuzendutako katalogo moduan argitaratutako argitalpenen bat, *Sareko euskarazko produktuen katalogoa*, adibidez.

3. Gazteen hizkera edo hizkuntza ohituren inguruko argitalpenak: Artikulu edo liburu formatua izaten dute eta gehienetan gazteen hizkuntza ohituren inguruko azterketak eta hausnarketak dira. Honelakoak dira Jone Miren Hernandezek idatzitako *Jolas garaia*. *Gaztetxoak*, *hizkuntzak* eta *identitateak* artikulua edo *Gazt_ Hizkera* liburuan argitaratutako artiku-

Esperientzia guztietan erabiltzen den metodologiari dagokionez, aisian eta honen filosofian oinarriturikoa dela ikusi dugu. Euskara GOZAMENA, ETA ASKATASUNAREKIN lotzen da, modu honetan euskarari erabilgarritasuna eta erakargarritasuna emanez.

Atzeak erakusten omen du aurrea nola dantzatu. Bildutakoa ikusita, gaiaren prospektiba egitea dagokigu orain. Orain heldu den lanketan, hutsuneak identifikatzea eta, horren arabera, gaia lantzerakoan kontuan hartu beharreko lehentasunak zein diren erabakitzea izango dugu helburu, egiten duguna baloratzearekin batera (erabilgarritasuna, zenbateraino ezagutzen diren, aurrera begira lehentasunak non jarri behar diren, osagarritasunak non...).

luak (Kike Amonarriz, Imanol Esnaola, Asisko Urmeneta, Estibalitz Amorrortu, Asier Larrinaga...). Bestalde, badira gazteen artean euskararen erabilera handitzeko tresnak eskaintzen dituzten argitalpen gutxi batzuk, adibidez, *Gazte Hizkerarekin Jolasean* liburuxka edo Ulibarrik argitaratutako hainbat liburuxka. Bukatzeko, badira gazteen artean egindako ikerketa soziolinguistikoen argitalpen batzuk, adibidez, *Debako Gazteak eta Euskara* edo Lasarteko *Euskara eta gazteak Lasarte-Orian*.

3. Ikerketak

Gazteen hizkuntza ohituren inguruko ikerketen **12 fitxa** jaso dira. Ikerketa orokorrak ez ditugu kontutan hartu nahiz eta ikerketa soziolinguistiko gehienetan adin guztiak aztertzen diren. Gazteen artean egindako ikerketa gehienak udalerrri mailan egiten dira eta horrelakoak dira: Oñatiko *Gazteen euskararekiko jarrerak*, Pasaiaiko *Elebitasunari buruzko testa*, *Gazteen hizkuntza jokaerak* eta *Gazteen euskararen erabileraren neurketa*, Zestoako *SMS erabilerari buruzko inkesta*, Gernikako *Euskararen presentzia eta ausentzien diagnostikoa* eta *Elgoibarko Gaztedia: eskola eta lanorduz kanpoko ikerketa*. Esparru geografiko zabalagoan egin diren ikerketen artean hauek jaso ditugu: *Arrue programa* (Soziolinguistika Klusterra), *Euskararen azterketa arloka* (Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua) eta *Etorkizuna Aurreikusten 99. gaztetxoak eta euskara* (EHU).

Bestalde, gehienetan, horrelako azterketetan gazteen artean euskararen ezagutza eta erabilera aztertzen bada ere, askotan esparru edo gai zehatzak ikertzen dira, hala nola: eskola giroan (*Arrue programa*), aisialdian (*Elgoibarren*), SMS-ak (*Zestean*), hizkuntza jokaerak (*Pasaian* eta *Oñatin*)...

Aipatzekoa da ikerketa guzti hauen helburua gazteen artean euskararen normalizaziorako lan ildoak eta irizpideak zehaztea izaten dela.

PROSPEKTIBA OSATZEKO: HEMENDIK AURRERAKO LANA

Atzeak erakusten omen du aurrea nola dantzatu. Bildutakoa ikusita, gaiaren prospektiba egitea dagokigu orain. Orain heldu den lanketan, hutsuneak identifikatzea eta, horren arabera, gaia lantzerakoan kontuan hartu beharreko lehentasunak zein diren erabakitzea izango dugu helburu, egiten duguna baloratzearekin batera (erabilgarritasuna, zenbateraino ezagutzen diren, aurrera begira lehentasunak non jarri behar diren, osagarritasunak non...).

Hemengo ondorioen berri proiektuaren amaieran izanen den jardunaldian emango dizuegu. Zehaztapen gehiago aurrerago helaraziko ditugu, baina jakin dagoeneko gonbidatuak zaudetela urriaren 26rako aurreikusitako dugun jardunaldira.■